

Diskoak

IKER BARANDIARAN



13 taupada.
Sharon Stoner.
Autoekoizpena.
Iraupena: 58'23".
13,50 euro.

Stonerra biziberritua, taupadak bezainbeste estilorekin

TAUPADA ASKO eta indartsuak eman ditu Oñatiko hirukoteak, eta horri esker bigarren diskoa autoekoiztu dute, itxuraz eta edukiz dotore askoa. Zuzenean talde irmoa bada ere, diskoan gehiago esperimentatzen dute. Lau minututik gorakoak dira kantu guztiak, bakoitzean zenbait giro eta paisaia uztartzeko gai dira, eta stoner etiketa txiki utziaz ñabardura eta musika ildoak ugariak dira: rock gogorra, ukitu lati-

noa, post-hardcorea, psikodelia, flamenko tantak, zati akustikoak edota stoner pisutsu eta azkarra. Hori guztia euskaraz abestua. Eta testuetan, Ternuako arrantzaleak, voyeurismoa, ezinegona, garapena, desioa edota adiskidetasuna. Bestalde, are eta musikari txukunagoak dira, ahotsarekin ere asko jokatu dute, eta Karlos Osinaga "Txap"-ek ederto borobildu du emaitza.

Sharon Stoner

«Abestiak apaintzerakoan nolabaiteko muga jarri behar izaten diogu gure buruari»

13 taupada. Zuentzat bizitza musika da?

Bizitza musika baino askoz gehiago da, gauza gehiago daudelako gozatzeko. Ardo bat otordu on batean lez, musika momentu askotarako osagarri aproposa da, une bakoitzean behar den giroa edota sentipenak sakontasunean lortzen laguntzen duelako.

Badira taldeak zuzenekoak eta diskoak bereizten ez dituztenak. Zuek bai, ezta? Are gehiago, esango nuke estudioko lana gustuko duzuela...

Estudioko lana ikaste prozesu aberasgarria da, asko esperimentatu eta beste batzuegandik ere ikasten delako. Gure soinuak aurkitu eta grabatu samur egiten dugu, baina nahasketa nahiko gogorra izaten da. Horrez gain, estudioan ikasitakoak zuzenekoetarako balio digu; bilatzen ditugun

soinu edo koloreekin apaintzen ditugu kantuak.

Zuen izenak stonerrari erreferentzia zuzena egiten dio, baina maketatik geroztik beste estilo eta ñabardura askorekin aberasten dituzue kantuak...

Stonerraren lehenengo araua da stoner ez zarela esatea (barrez). Ez diogu etiketa horri uko egiten, baina etiketa horren azpian dauden talde askok askoz gauza aberatsagoak egi-

ten dituztela uste dugu. Taldeek egiten dutena egiten dute, eta gero jartzen zaie etiketa.

Abestiak idazterakoan eta grabatzerakoan argi izaten duzue bakoitza noiz bukatu edo buelta asko ematen dizkiozue?

Bi atal ezberdintzen ditugu: abestiaren eskeletoa edo egitura egitearena, eta egitura hori janztea eta apaintzea. Lehenengoa nahiko arina izaten da, baina bigarrenean jarri behar izaten diogu nolabaiteko muga gure buruari, ez gaitezen biziari abestiak gehiegi hornitzen.

Grabatzerakoan, ordea, argi izaten dugu zer grabatu eta zer ez. Zeintzuk dira "akorde debekatuak"?

Musikan ez dago akorde debekatu edo okerrik, ez guretzat behintzat. Tarte edo akorde disonanteetako afizioa izan genuen garaian, umore gisa, izen hori erabiltzen genuen. ■

